

auzoz auzo •


antigua-ibaeta

Sagardotegi tradizioari eutsiz

Munibe taldean oraindik ez dira errekerperatu orain hiru aste Ordizian erredurak jasan zituzten jokalaria. Gogoratu, zelaian produktu kimiko baten eraginagatik, bost jokalarik erredurak izan zituztela.

Frontoi nagusiaren alboan dagoen parkearen berriztatze obrak hasi dira. Udaletxeak erabakitako obra hau, aurreko parkea zaharkiturik zegoela eta erabaki da. Bi hilabetez luzatuko dira obrak.

San Sebastian eguna dela eta, Antiguako auzoan danborrada jotzen parte hartuko duten taldeen zerrenda hor doakizue: Sansustene, Basoetxe, Antiguako gazteen eta Umeen danborradak, Santa Rita, jakintza, marianistak, Ekintza eta Amor Misericordioso.



Urkiola sagardotegiak obra batzuk egin ditu aurtengoan jende gehiagor sar dadin.

baeta aldean denbora luze luzea daramate sagardo kontutan murgildurik. Orain geratzen den sagardotegi bakarrak, bertako Urkiola sagardotegiak 100 urte inguruko esperientzia dauka. Lehen ordea, hainbat leku zeuden sagardoa dastatzeko. Izaskun Urkiolak, abizen bereko sagardotegikoak esan zigunez, «lehen zentruko eta inguruetako donostia-

rrak sarritan etortzen ziren Ibaetara sagardotegietan afaltzerak».

Izaskunek esan digunez familiako zaletasunak irauarazi du Urkiola sagardotegia martxan. Zaletasun horrek bultzaturik, berritze lanek ekin diote, alboan duten beste etxe bat erabiliz.

Sagardo sasoi berria larunbatean hasiko da, eta apirila arte irauingo du.

Horretarako Azaro aldetik prest dituzten zortzi kupe-lak erabiliko dituzte. Haragiari dagokionez biltegietatik jasotzen dute.

Sagardotegietara joateak duen arrakasta azaltzeko esplikazio errezik ez omen dago. Izaskunen ustetan moda bat besterik ez da.

UNAI IBARBIA (TFNOA.: 217627)

ARGAZKIA: ROXALI FERNANDEZ

ITZULPEN ZERBITZUA
eskuira
 SERVICIO DE TRADUCCION

Bereziki lantzen dugun arloa: GAZTELANIA - EUSKARA
 EUSKARA - GAZTELANIA

JOSE ARANA 15.
 DONOSTIA (Gros auzoan)

Tel. 291830
 Fax: 275869